

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 18a

40. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2014ko ekitaldirako aurrekontuari, azalpen-oroitidazkiari eta jarduketa planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak I+G+B delakorako 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, azken hamar urteotan Orkoiien biomasa bidezko elektrizitate ekoizpenerako planta bat jartze aldera Nafarroako Gobernuak guztira bideratutako diru-kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak enpresa-inbertsiorako eta enplegua sortzeko 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Senda Vivaren jarduera birplanteatzeko muga gisa Nafarroako Gobernuak darabiltzan ondoz ondo EBITDA adierazleen datari eta galera-zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, gazte txartela gaztelera-ingelesez besterik ez egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Goenaga andreak Zergen arloko Heziketarako Estrategian prestatu eta Nafarroako Gobernuak bere eginen dituen neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, 2014ko aurrekontuetan latxa arrazako ardia mantendu, berreskuratu eta bultzatzeko kontusail bat sartzeko asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroan Ekintzaileei eta Lan Autonomoari laguntza emateko 12/2013 Foru Legeko IV. kapituluari jasotako laguntzetarako 2014ko deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko operazio-gelen eraikina ekipatzeko errentari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, hezur-muinaren transplanteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, lantalde fiskalaren lan esparruan edukien eta epeen aldetik hartu diren konpromisoak mantentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren tributu-arloko helburuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2014ko ekitaldirako aurrekontuari, azalpen-oroitidazkiari eta jarduketa planari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2014ko ekitaldirako aurrekontuari, azalpen-oroitidazkiari eta jarduketa planari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko zein diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren aurrekontua, azalpen-oroitidazkia eta jarduketa plana. Urtarrilaren 14ko 121 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen galdera hori. Hona Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutuetako 40. artikulua araberan, "ekitaldi bakoitzeko azken hiru hilabeteetan, Fundazioko Patronatuak Babesletzari hurrengo urteari buruzko aurrekontua bidaliko dio, eta harekin batera, azalpen-oroitidazki bat eta jarduketa plan bat, non hurrengo ekitaldian garatzea aurreikusten dituen helburu eta jarduerak jasoko baitira".

Estatutuetan ezarritakoaren arabera, abenduaren 30ean, astelehenez, eskatutako dokumentazioa eskuratu zitzaion.

Dokumentazio horri buruzko komunikazioa eskatzeari dagokionez, esan beharra dago Fundazioaren estatutuetako 46. artikuluan ezartzen dela aurrekontuak, jarduketa planak eta kontuei buruz, jokabide-kodearen betetzearen gaineko txostenari buruz eta kontuen auditoriari buruz oroitidazkian jasotako dokumentazioa, bai eta, kasua bada, gobernu korporatiboari buruzko txostena, publikoak izanen direla eta entitateko webgunean argitaratu direla.

Urtarrilaren 21ean, Fundazioaren webgunean, aurrekontuak argitaratu ziren (<http://www.cajana-varra.com/caja-navarra/actualidad/los-presupuestos-de-fundacion-caja-navarra-para-este-ano-suman-11632300>). Aurrekontu horietan azaltzen dira Fundazioak 2014ko ekitaldian egin asmo dituen jarduketak .

Gobernuari aurkeztutako plana behin-behineko plan bat da, eta Fundazioa lantzen ari den plan estrategikoaren esparruan berraztertu beharko da.

Behin betiko plana dagoenean, argitaratu egingen da.

Entitate pribatu bat denez, bera da eskatutako dokumentuak argitara eman behar dituenak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko otsailaren 13an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## Galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak I+G+B delakorako 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Industria eta Ekonomia Departamentuak I+G+B delakorako 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak informazioa eskatu du Industria eta Ekonomia Departamentuak I+G+B delakorako 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruz (8-14/PES-00007). Hona Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

#### Datuen xehakapena, eskatutako kontzeptuen arabera:

URTEA	Aurrekontuetan agertzen dena	Ordaindutako aurrekontua	Aurkeztutako proiektu kopurua	Diruz lagundutako proiektu kopurua	Sorrarazi den inbertsioa	Sorrarazi den enplegua (*)
2005	26.489.320	24.412.768	273	203	155.951.818	60
2006	41.598.000	41.412.196	290	216	152.429.125	154
2007	28.592.551	27.740.640	471	297	180.591.150	249
2008	34.104.315	29.653.547	354	214	158.470.423	299
2009	36.075.694	30.455.052	400	196	104.643.862	73
2010	33.492.010	32.328.141	342	193	108.703.318	29
2011	37.202.538	14.890.156	337	190	88.366.859	86
2012	30.161.130	22.940.232	260	148	79.869.501	100
2013	19.687.921	17.475.659	10	78	23.221.997	14
<b>GUZTIRA</b>	<b>287.403.480</b>	<b>241.308.391</b>	<b>2.737</b>	<b>1.735</b>	<b>1.052.248.052</b>	<b>1064</b>

(\*) Informazio hori enpresak aurkeztu zuen proiektuak ekonomikoki justifikatzerakoan. Horren barnean daude kontratazio berrien kasuak, enpleguari eutsi zaion kasuak eta azpi-kontratazioak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, azken hamar urteotan Orkoien biomasa bidezko elektrizitate ekoizpenerako planta bat jartze aldera Nafarroako Gobernuak guztira bideratutako diru-kopuruari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, azken hamar urteotan Orkoien biomasa bidezko elektrizitate ekoizpenerako planta bat jartze aldera Nafarroako Gobernuak guztira bideratutako diru-kopuruari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Victor Rubio Martínez jaunak

idatziz erantzuteko galdera egin du Orkoien biomasa bidezko elektrizitate ekoizpenerako planta bat jartzera bideratutako gastuari buruz (PES-00009). Galdera hori 144 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hauxe da Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak horri buruz ematen dio informazioa:

Nafarroako Gobernuaren Kontabilitate Sistema aztertuta, ez dago jasota aipatutako enpresari inongo ordainketarik egin zaionik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak enpresa-inbertsiorako eta enplegua sortzeko 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Industria eta Ekonomia Departamentuak enpresa-inbertsiorako eta enplegua sortzeko 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Industria eta Ekonomia Departamentuak enpresa-inber-

tsiorako eta enplegua sortzeko 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruz (8-14/PES-00006). Galdera hori urtarrilaren 14ko 123 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hauxe da kontseilariaren erantzuna:

Eskatutako datuak jasotzen dituen artxiboa erantsi dizut. Datu horiei dagokienez, alde zuzeneko azalpen modura, esan beharra dago ezen, oro har, finantzatutako inbertsio-proiektuak zenbait ekitalditan zehar betetzen direla, halako moduz non gastu-konpromisoak laguntzak ematen diren urtearen ondorengo urteetarako hartzen baitira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2014ko otsailaren 19an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## 2005-2013 URTEETAKO ENPRESA-INBERTSIOA

URTEA	HASIERAKO AURREKONTUA	BETETAKO AURREKONTUA	AURKEZTUTAKO PROIEKTU KOPURUA	DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUEN KOPURUA (ORDAINDUAK)	SORRARAZITAKO INBERTSIOA (ORDAINDUTAKO PROIEKTUAK)	SORRARAZITAKO ENPLEGUA (ORDAINDUTAKO PROIEKTUAK)	DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUEN KOPURUA (LAGUNTZA EMANDAKOAK)	SORRARAZITAKO INBERTSIOA (LAGUNTZA EMANDAKO PROIEKTUAK)	EMANDAKO LAGUNTZA (LAGUNTZA EMANDAKO PROIEKTUAK)
2005	71.712.800,00	66.853.719,39	449	450	458.469.379,60	1363	461	683.651.951,00	90.533.749,77
2006	72.902.584,00	74.400.761,62	553	381	511.426.135,19	828	926	1.854.141.963,00	249.056.558,34
2007	78.267.004,00	72.544.847,69	303	560	650.736.611,72	1076	17	20.462.174,00	4.681.933,20
2008	80.808.939,00	69.587.853,03	350	401	515.909.523,83	847	481	889.676.313,00	105.046.690,16
2009	72.126.568,00	54.328.082,22	268	221	446.878.473,79	646	82	95.704.461,37	19.466.131,24
2010	53.993.500,00	46.911.616,20	346	229	434.355.512,18	1.713	299	438.799.166,69	62.023.256,26
2011	49.111.687,00	26.776.253,28	217	212	278.738.388,34	1.753	209	275.332.923,02	35.195.412,39
2012	52.461.042,00	45.936.120,23	193	269	376.394.740,16	509	141	107.431.689,00	19.806.469,69
2013	43.036.437,00	34.425.047,74	17	265	214.942.444,40	373	17	7.237.833,00	1.427.396,24
<b>GUZTIRA</b>	<b>574.420.561,00</b>	<b>491.764.301,40</b>	<b>2.696</b>	<b>2.988</b>	<b>3.887.851.209,21</b>	<b>9.108</b>	<b>2.633</b>	<b>4.372.438.474,08</b>	<b>587.237.597,29</b>

**OHAR BATZUK, DATUAK ARGITZE ALDERA:**

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak enpresa-inbertsiorako laguntzak kudeatzen ditu, horren bame direla nekazaritza-industrietarako laguntzak (nekazaritza-produktuen balio erantsia handitzea). Nekazaritza elikagaien industriei 2005etik emandako laguntzei buruzko datuak sartu dira, nahiz eta 2011. urteko erdi parera arte Landa Garapeneko Departamentuak kudeatu dituen.

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean ordaindutako proiektuak, neurri handi batean, aurreko ekitaldietan onartutako proiektuak dira.

Gainera, ekitaldi bakoitzean laguntzak emandako inbertsio proiektuen datuak sartu dira; horietatik, proiektu gehienek etorkizuneko ekitaldietarako urte anitzeko konpromisoak sortu dituzte.

Ez dira sartu ukatutako edo bertan behera utzitako proiektuen zenbakekoak.

Ez dira sartu laguntza emateko edo/eta ordainuzeko dauden proiektuen zifrak Enpresa-inbertsiorako laguntzen deialdia (488/2009 Foru Agindua) 2012ko azaroaren 7an itxi zen.

Nekazaritza-proiektuen balio erantsia handitzeko laguntzetarako deialdia (95/2011 Foru Agindua) 2013ko martxoaren 13an itxi zen.

2006-2007 eta 2008-2009 aldietako laguntzak ematerakoan izan diren gora-beheren arrazoia da 2006an eta 2008an laguntza-esparruen aaldiak amaitu zirela, eta, beraz, laguntza hortien irismena gutxitu zela.

Azken urte hauetan hasierako aurrekontuaren eta betetako aurrekontuaren artean dauden aldeak aurrekontu-murrizketa eta -blokeoek eragindakoak dira.

Azken urte hauetan laguntza gutxiago eman izatearen arrazoia da urte anitzetarako konpromisoak direla-eta aurrekontuetan izan diren murrizketak.



## Galdera, Senda Vivaren jarduera birplanteatzeko muga gisa Nafarroako Gobernuak darabiltzan ondoz ondoko EBITDA adierazleen datari eta galera-zenbatekoari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Senda Vivaren jarduera birplanteatzeko muga gisa Nafarroako Gobernuak darabiltzan ondoz ondoko EBITDA adierazleen datari eta galera-zenbatekoari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 20an


Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2014ko urtarrilaren 15ean 145 sarrera-zenbakiarekin erregistratua (PES-00010), Sendavivaren jarduera birplanteatzeko muga gisa Nafarroako Gobernuak darabiltzan datari eta galera-zenbatekoari buruz. Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

### I. ARRAKASTA-ALDAGAIK ETA DIRU-SARREREN HOBEKUNTZA

Sektorearen barnean, emaitza positiboak lortzeko edo aztertzeko orduan, aldagai garrantzitsuak aldagai jakin batzuk dira; oso bereziki, bisitarien kopurua eta haiek parkean nahiz Nafarroako bestelako establezimendu eta enpresa batzuetan egiten duten gastua.




Hona hemen Sendaviva negozioaren gako nagusiak: parkeak urtez urte erakartzen dituen bisitarien kopurua, bisitari horien jatorria eta gastu-eredua, eta bisitariak parkean egiten duten gastua.

Ardatz horiek garatu ahal izateko hainbat jarduketak egiten dira eta egin dira, arlo hauek landuz:

- Produktuaren hobekuntza: produktua hobetuz gero, bisiten errepikapena eta bisitari kopuruaren "zorua" lortzen dira. 2007an errepikapen indizea % 30ekoa izan zen eta gaur egun % 59koa da.

- Publiko berria erakartzea: denboraldi guztietan hainbat ekintza komertzial egiten dira bisitari berriak erakarri ahal izateko eta hartara ekintza-erradioa luzatzeko. Ekitalditik ekitaldira Nafarroaz kanpoko gero eta familia eta talde gehiago etortzen dira parkera. Beste probintzia eta erkidego batzuetako bisitariak garai batean % 49 izatetik 2013an % 69 izatera igaro dira. Datu horri distantziaren ikuspegi hutsetik begiratzen badiogu, ordea, parkera 3 ordu baino gehiagoko bidea egin duten bisitarien portzentajea % 20raino hazi da.

### Autoz Sendavivatik 3 ordura baino urrutiago bizi diren bisitarien portzentajearen bilakaera. 2004-2013



- Bisitaren iraupen eraginkorra luzatzea. Parkeak lortu du urtez urte handitzea gau bat bederen Nafarroan ematen duten bisitarien kopurua. Sendaviva parkea oso helmuga erakargarri bilakatu da, Nafarroako garrantzitsuena, non Foru Komunitateko bisita egun baterako baino gehiagorako planteatzen baita.

- Urtero lan egiten da kokapen komertziala sendotzen, marka askorekiko akordioen bitartez (Frigo, Keler, Pepsi, TravelClub, El Corte Inglés, Eroski Bidaiak), eta sustapenak eginez aisiako talde eta atariekin.

- Bardeako Batzarrearekin batera jarduteko protokoloan lan egiten ari da. Lehenbiziko fasean parkea ikastetxeei saltzea da helburua, hots, labor esanda, Nafarroako, Kataluniako, EAeko eta Frantzia hegoaldeko ikastetxeetako ikasleei produktu erakargarria eskaintzea. Produktu horren barnean uztartzen ditugu hezkuntzako eskaintza, aisiakoa eta ostatu-eskaintza. Sendavivatik Bardeako Batzarrearen esku jartzen ditugu gure indar komertzial guztia eta honelako produktuen salmentan metatu dugun esperientzia. Inolako kostu erantsirik sortu gabe Sendavivarentzat.

Ekintza horiek guztiak, ordea, bisitak ezin hobeki joan daitezen funtsezko garrantzia duen elementu baten mende daude: eguraldiaren mende. Bisitari kopuruak ezin hobekak izateko aldagai erabakigarria da. Adibide gisa, 2013ko denboraldian, eguraldi txarreko egunek (25 egun denboraldi osoan) 16.000 bisitari baino gehiago kendu dizkiote parkeari.

## II. GASTUAREN KONTROLA

Parkea irekita dagoen egunak ahalik gehien optimizatzearen politika erabili da azken denboraldietan, eguneko bisitari kopuru handiagoa bermatzen saiatzeko, halako moduan non ustiapen kostuak txikiagotzen baitira eta langileen kudeaketari malgutasun handiagoa ematen baitaia.

Parkearen gastu finakoak gero eta txikiagoak direla nabarmendu behar da. Kostu finakoak 2011tik 2012ra % 7,6 beheratzea lortu da, eta 2013an beherakada % 3,7koa izan da.


Marketing gastuak (azken hiru ekitaldietan) % 18,2 murriztu dira, berariazko kanpainetan bildu dira ahaleginak, eta parkearen eragin-eremua hedatzera bideratu da ahalegina.

## III. OSTALARITZA-AZPIEGITUREN SORRERA

Horrez guztiaz gain, ez dugu ahanzi behar zein den oraintxe funtzionatzen duen negozio-egitura. Parkearen eta ostatuaren konbinazioa da; bi egitura horiek dituen enpresak sor dezake kutxa. Parke tematiko bat ere ez da errentagarria berez, etekina lortzen lagunduko dioten ostalaritza instalazio indartsuak atxikita eduki gabe. Sendavivaren kasuan, lan egiten ari da bere kasa errentagarria izan dadin, bide ematen ari da ekimen pribatuak lor ditzan itzulkin garrantzitsu horiek, proiektu hau argi justifikatuko luketenak.

2003an parkea sortu zenetik, ikus daiteke nola % 27,8 hazi den ostatu ematearekin zerikusia duten establezimenduen eskaintza.






2014ko urtarrilaren 7ko datuak


Gainera, kontuan izan behar da inguruan lehendik zeuden 3 hotelek obrak egin dituztela beren eskaintza Sendavivara etortzen den bezero motari egokitzeko.

Oheei dagozkien datuak aztertzen baditugu, esan dezakegu Sendavivako bezeroentzako moduko ezaugarriak dituzten 1.661 ohe daudela Erribera aldean. Sendaviva ireki ondoren 599 ohe sortu dira, hau da, % 56 handitu da oheen kopurua.



2014ko urtarrilaren 7ko datuak


Datu horiek gurutzatzen baditugu inguruan gaua eman duten bisitarien kopuruarekin, ikus dezakegu zenbateraino bete diren Sendavivari esker instalazio horiek. Batez besteko okupazioa % 24,37koa da parkea irekita dagoen egunetan. Hona hemen datuak hilabetez hilabete:



2014ko urtarrilaren 7ko datuak


#### IV. OREKA PUNTUA

Bisitari bakoitzeko unitate-kostua beheratzeko lan eginez eta bisitari bakoitzeko diru-sarrera handituz, ikus dezakegu nola azken urteotan oreka puntua hobetu eta gastuen eta diru-sarreraren arteko aldea laburtu den.



2014ko urtarrilaren 7ko datuak, auditoria itxi baino lehenagokoak

Gastuak kontrolatzeko politika baliaturik, sarren prezioari eta aurreko ataletan aipatutako diru-sarrerak handitzeko lanari eutsiz, eta hurrengo urteetarako % 4 eta % 10 bitarteko hazkundeak onarturik, ikus dezakegu nola 225.000 bisitarirekin gaina hartu ahal zaion oreka puntuari, non jada errentagarria izaten hasiko bailitzateke Sendavivaren ustiapen kontua.



#### V. ERAGIN SOZIOEKONOMIKOA

Eragin sozioekonomikoari buruzko azterlanaren helburua da parkeak ekonomian eta gizartean duen eragina ezagutzea. Sendaviva bere ingurua biziberritzeko eta ekonomia oso garrantzitsu bat eragiteko proiektua dela ondorioztatu izan da horrelako azterlanetan, lehendabizikotik hasita.

Parkearen eragin ekonomiko eta sozialaz azken 6 urteetan egindako zenbatespenak argudioak eskaini ditu parkea biziberritze proiektutzat eta Nafarroan eragindako ekonomia garrantzitsu baten sortzailatzat jotzeko. Bai parkearen eraikuntza faseak bai funtzionamendu faseak zuzeneko, zeharkako eta eragindako inpaktuak sortzen dituzte, enplegu sorrerarekin eta soldata nahiz tributuaren sorrerarekin lotuak, eta badute inpaktu ekonomikoa eskualdeko ekonomian.

	Turisten gastua	Sortutako zuzeneko gastua	Sortutako langile kop.	Zerga bilketa
2012	5.290.381	7.807.297	140	1.493.266
2013	7.223.087	9.448.710	140	1.723.526

2013ko azaroko datuak

Garrantzitsua da argi edukitzea badirela zenbateko batzuk kontuan hartzen ari ez direnak, hala nola parkearen funtzionamenduak eragiten duen gastua. Metodologia horretan ez da kontuan hartzen parkeko langileen errenta likidoak (aurrezki tasa kendutakoan) Nafarroako ekonomiari egiten dion ekarpena.

Kontuan izan behar dugu badela beste datu bat azterlan honetan kontabilizatu ez duguna, alegia, parkeko bisitarien % 14,5ek diotenez beste jardura batzuetan eginen omen duten gastua.

Zergen bidezko eta Sendavivako jardueraren bidezko diru-sarrerek besterik gabe parkearen emaitza operatiboak orekatzen dituzte.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 18an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, gazte txartela gaztelera-ingelesz besterik ez egiteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak egindako galderaren erantzuna, gazte txartela gaztelera-ingelesz besterik ez egiteari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak idatziz erantzuteko galdera egin du gazte txartela dela eta (8-14/PES-011). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

1. Azkenaldian txartel hauek gaztelera-ingelesz besterik ez dira egiten. Zergatik?

2013ko lehen hiruhilekoan dohainik berri ziren gazte txartela ez-finantzario guztiak (4.000 inguru). Euskarazko txartelen titularrak 350 zirenez, halako 500 txartel eskatu ziren, 2013an zehar txartel gehiago eska zitezkeelakoan. Izakin horiek

azaroan bukatu ziren. Gaztelaniazko erabiltzaileak 10 aldiz gehiago dira. Beraz, txartel gehiago eskatu ziren eta oraindik ez dira bukatu.

2. Azkenaldian Gazte txartela euskaraz egiteko ezintasuna dago. Ba al du Gobernuak txartel hauek euskaraz emititzeko asmorik?

Otsail honen hasieran beste erreserba bat egin da euskarazko txartelen eskaria asetze aldera.

3. Euskararen Legea betez, txartel hauek euskaraz egitera behartua dago Gobernuak. Noizko egingen du?

Oraintxe zain gaude, gazte txartelak egiten dituen enpresari eskatu zaizkionak noiz jasoko.

4. Egun gaztelera txartela egitera behartuak dauden pertsonen ematen al zaie aukera txartela euskaraz egiteko, prest izan orduko?

Bai.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, Goenaga andreak Zergen arloko Heziketarako Estrategian pres-tatu eta Nafarroako Gobernuak bere eginen dituen neurriei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Goenaga andreak Zergen arloko Heziketarako Estrategian pres-tatu eta Nafarroako Gobernuak bere eginen dituen neurriei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 31ko 19. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, urtarrilaren 23an 268 sarrera-zenbakiarekin erregistratua (PES-0019), María Goenaga Ruiz de Zuazu andreak zergen arloko heziketarako estra-tegiaren dokumentuan proposatu eta Nafarroako

Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak bere eginen dituen neu-rriei buruz. Hauxe erantzun dio Nafarroako Gober-nuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Departamentuak bere eginen dituen neurriak Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Planean jasoko dira, berariazko atal batean. Departamen-tuan plan hori amaitzen ari da eta garaia denean aurkeztuko zaio Nafarroako Parlamentuan sortuta-ko Lantalde Fiskalari. Orduantxe aurkeztuko dira neurri horiek, planeko gainerako neurriekin batera, organo eskudunek haiek aztertu eta baloratutako-an.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, 2014ko aurrekontuetan latxa arrazako ardia mantendu, berres-kuratu eta bultzatzeko kontusail bat sartzeko asmoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Par-lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin M.<sup>a</sup> del Carmen Ochoa Canela andreak egindako gal-deraren erantzuna, 2014ko aurrekontuetan latxa arrazako ardia mantendu, berreskuratu eta bultza-tzeko kontusail bat sartzeko asmoari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 31ko 19. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M. Carmen Ochoa Canela andreak idatziz erantzuteko galdera egin

du, jakitekoa ea Gobernuak asmorik ba al duen 2014ko aurrekontuetan kontusail bat sartzeko 2014rako LGP berriaren kargura (8-14-PES-00017). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseila-riak:

2014rako luzatutako aurrekontuak badu bera-riazko kontusail bat abeltzaintza sustatzen duten elkarteen jardueri diru-laguntza emateko. Aslana laguntza horiek jasotzen dituzten elkarteetako bat da.

Kontusailean 420.861 euro jarri dira, eta lagun-tzak lehia araubidean emanen dira. Horregatik, Aslanari egokituko zaion zenbatekoa, batetik, elkarte horrek eta gainerako abeltzaintza elkarteek egiten dituzten jardueren eta justifikatzen duten gastuaren arabera izanen da, eta bestetik, elkarte horiek Ministeriotik jasotzen dituzten

laguntzen araberakoa. Beraz, ezin da aldez aurretik jakin zenbateko diru-laguntza egokituko zaion Aslanari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 21ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, Nafarroan Ekintzaileei eta Lan Autonomoari laguntza emateko 12/2013 Foru Legeko IV. kapituluaren jasotako laguntzetarako 2014ko deialdiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroan Ekintzaileei eta Lan Autonomoari laguntza emateko 12/2013 Foru Legeko IV. kapituluaren jasotako laguntzetarako 2014ko deialdiari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ekintzaileentzako laguntzei buruz (PES-8). Hauxe da Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak honako laguntzak ematen ditu ekintzaileek beren jarduerahasiera finantzatu dezaten, :

- a) Norberaren konturako langile autonomo gisa ezartzeko diru-laguntza.
- b) Enpresa sortu eta abian jartzeko inbertsioak finantzatzeko maileguen interesak gutxitzeko diru-laguntza finantzarioa.
- c) Laguntza teknikorako diru-laguntza.

d) Enpresa abian jartzen den bitartean, enpresen zuzendaritzarekin eta kudeaketarekin nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriekin lotutako ikastaroak egiteko diru-laguntza.

Diru-laguntza 5.000 eta 10.000 euro bitartekoa da, eskatzailearen profilaren arabera, lehenengo bi modalitateetan; eta kostuaren % 75ekoa, berriz, hurrengo bi modalitateetan, 2.000 eta 3.000 euroko gehienekoekin, hurrenez hurren. Laguntza horiek 2013an 1.006.000 euroko kostua izan zuten.

2013an, 171 laguntza eman ziren, honela banatuak: 157 pertsonari diru-laguntza eman zitzaizkien autonomo gisa ezartzeko; 11 pertsonari diru-laguntza finantzarioa eman zitzaizkien; eta beste 3 pertsonari laguntza teknikorako edo prestakuntzarako diru-laguntzak eman zitzaizkien.

Laguntza horiek zuzentzen zaizkie langabeak izan eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile moduan izena emandako pertsonen, baldin eta Nafarroan beren konturako autonomo gisa ezartzen badira eta Gizarte Segurantzaren autonomoen araubidean nahiz lanbide-elkargoen kasuko mutuan alta ematen badira.

2014an, diru-laguntzen lau modalitateetarako deialdia onetsi da jada. Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 7ko 106/2014 Ebazpenaren bidez adierazitakoak dira. Laguntza horietarako, 1.009.340 euroko kopurua ezarri da.

Halaber, Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzeko diru-laguntzak ezartzen dira, langabezi ordainsariaren kapitalizazioa ordainketa bakarreko modalitatean gauzatzen den kasuetarako, autonomo gisa ezartzen diren pertsonentzat SEPErekin egindako hitzarmenaren esparruan. 2014an, deialdi horretan 241.250 euroko aurrekontua ezarri da. 2013an, prestazio hori 258 pertsonari eman zi-

tzaien, eta betetako aurrekontua 302.466,84 eurokoa izan zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko otsailaren 24an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko operazio-gelen eraikina ekipatzeko errentari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko operazio-gelen eraikina ekipatzeko errentari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuterako Reina Sofía Ospitaleko operazio-gelen eraikina ekipatzeko errentari buruz:

“1.- Departamentuak zertan oinarritzen du ekipamenduaren kostua 2,1 milioi eurokoa izanen litzatekeela? Aurrekonturik egin al da? Halakorik baldin badago, horren kopia ere jaso nahi dugu.

2.- Osasun Departamentua zenbat ordaintzeko prest dago kontratuaren amaieran? Zein izanen da azken prezioa?

3.- Departamentuak esleipenaren baldintza-orian zer baldintza jasotzeko asmoa du? Baldintza-orrria igortzea eskatzen dugu, baldin eta egin da badago, edo, bestela, dagoen dokumentazioa eta alde aurreko azterlanak.” (8-14-PES-00023). Hona hemen Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Tuterako kirurgia blokeko ekipamenduari dagokionez, baldintzen agiria egiten ari da egungo beharrak oinarritzat harturik. Beraz, ez dago emateko moduko dokumentaziorik.

Ekipamendu kirurgikoaren arloko antzeko beste esperientzia batzuk erreferentzia harturik kalkulatu da 2,1 milioi euroko zenbatekoa, baina tresna guzti-guztien zerrenda zehazten denean kalkulatu da azken zenbatekoa.

Hautatu den renting modalitateari dagokionez, kontratuei buruzko legean aurreikusten den aukera da eta bide horren egokitasuna baloratu da, gastua kontratatutako ekipamenduaren erabilerari lotuta baitago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## Galdera, hezur-muinaren transplantei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, hezur-muinaren transplantei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du hezur-muinaren ematei buruz emandako datuen inguruko zenbait gairi dagokienez (8-14-PES-00020). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariak:

1. Hezur-muinaren zenbat transplante egin dira Nafarroako Ospitalegunean, teknika hori ezarri zenetik? Zein izan dira emaitzak?

1993tik 2008ra bitartean 344 autotransplante egin ziren, eta 2009tik 2013ra bitartean 157 autotransplante. Guztira 501 egin dira.

Transplante alogenikoei dagokienez, 2009tik 2013ra bitartean horrelako 91 transplante egin dira.

Emaitza orokorrak EBMTk (European Group for Blood and Marrow Transplantation) eta CIBMTRk (Center for International Blood and Marrow Transplant Research) erregistratutakoen parekoak dira, eta hurrengo erantzunean zehaztuko dira.

2. Zein da Nafarroako Ospitalegunean hezur-muinaren transplantea egin zaien pertsonen biziraupen-indizea urtebetera, bost urtera eta epe luzeagora, gure erkidegoan transplante hori abian jarri zenetik?

Transplante autologoa egin zaien pertsonen biziraupena azterlan eta berrikuspen gehienetan argitaratutakoaren parekoa da: hiru hilabetera % 98 eta 5 urtera % 92.

Transplante alogenikoaren kasuan biziraupen-indizea urtebetera % 80koa da eta 4 urtera % 71koa.

5 urtera, oraindik ez dago daturik, 2009an hasi baitzen horrelako transplanteak egiten.

3. Nafarroako Ospitalegunean ba al dago hezur-muinaren transplanterako jarduketa-protokolorik?

2013ko otsailetik badira 31 LPN (lan prozedura normalizatuak), zerbitzuko edozein ordenagailutik eskuragarri (lehen bertsioa). Urtero berrikusiko dira (aurtengo berrikuspena egin gabe dago).

4. Baldin badago, betetzen al da?

Zerbitzuak egindako prozedurak izan dira, eta Nafarroako Ospitaleguneko zuzendaritzak haiek betetzeko eskatzen du.

5. Osasun-praktika horrekin zerikusia duten sozietate zientifikoek giden araberakoak al dira?

Bai. Bat datoz EBMTrekin, CIBMTRekin, JACIErekin (The Joint Accreditation Committee of ISCT), IDSArekin, HMTRI buruzko Eskuliburuarekin (E. Carreras), REDMOrekin (Hezur Muinaren Emaileen Espainiako Sarea), ONTrekin (Transplanteen Erakunde Nazionala), ECILekin (European Conference on Infections in Leukaemia), GETHrekin (Transplante Hematopoietikoen Espainiako Taldea), GEMekin (Mielomaren Espainiako Taldea). Batzuetan saiakuntza klinikoen barruan egiten dira, betiere eriarri informazioa emanda eta baimena eskatuta.

6. Transplantea egiten duen lantaldeko kideen artean adostutako protokoloak al dira?

Bai, kasu kliniko jakin batzuetan erreskateko tratamendua eztabaidagarriagoa izan daiteke eta lantaldeko arduradunak hartzen du azken erabakia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín



## **Galdera, lantalde fiskalaren lan esparruan edukien eta epeen aldetik hartu diren konpromisoak mantentzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, lantalde fiskalaren lan esparruan edukien eta epeen aldetik hartu diren konpromisoak mantentzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 31ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan, jakiteko ea Nafarroako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak eutsi egiten al dien lantalde fiskalaren lan esparruan hartutako edukinahiz epe-konpromisoei, Nafarroako Zerga Ogasunean azkenaldian gertatutakoen ostean (PES-00018). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

Departamentuak eutsi egiten die Nafarroako Zerga Ogasunak bere gain hartuak dituen konpromisoei, burutu gabeko gaiak aurkeztu eta azaltzeko, eta gogotik ariko da elkarlanean Nafarroako Parlamentuak eskatzen dion guztian. Bereziki:

1. Martxoaren amaiera aldera amaitzekoa da ezkutuko ekonomiari buruz Ignacio Mauleón jaunari eta Jordi Sardá jaunari eskatutako azterlana. Nafarroako Zerga Ogasunak azterlan hori eskuratzeko duenean bilkura monografiko baterako deialdia eskatuko da, egileek beren lanaren emaitza

azal dezaten. Bilkura hori, ziur aski, apirilean edo maiatzean egin liteke.

2. Zerga Iruzzurren aurka Borrokatzeko Plana egiten ari da. Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriak buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian Nafarroako Gobernuari hiru hilabeteko epea ematen zaio hura aurkezteko, aurreko puntuan aipatutako azterlana aurkeztu denetik hasita. Hala ere, Nafarroako Zerga Ogasunak ez du epe hori agortuko eta lehenbailehen aurkeztuko dio plana lantalde fiskalari, alde batera utzirik balitekeela neurri gehigarriak ezartzea azterlan horren ondorioz.

3. Lantalde fiskalak erabaki zuen txostena eskatzea, PFEZaren zerga-oinarrian gaur egun aplikatu daitezkeen murrizketak kuota osoan aplikatzeko kenkari bihurtuko balira horrek zerga-bilketari nola eraginen liokeen aztertzeko, zenbait egoera desberdin kontuan harturik. Txosten hori bukatzen ari da, eta laster aurkeztuko dira emaitzak.

4. Lantalde fiskalaren esparruan Ogasuneko teknikariekiko bilera egiteko eskaera igorri da duela gutxi, zor geroratuarekin eta betearazteko bidean dauden zorrek zerikusia duten gaiak jorratzeko. Bilera horren eguna lantaldearekin adostuko da.

Laburbilduz, Nafarroako Zerga Ogasuna Nafarroako Parlamentuarekin lankidetzan aritu da eta hala jarraituko du lantalde fiskalaren bitartez, erakunde horren interesekoak diren gai guztietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 18an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren tributuko helburuei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuaren tributuko helburuei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, urtarrilaren 30ean 353 sarrera-zenbakiarekin erregistratua (PES-0029). Galdetu du ea zeintzuk diren egungo Nafarroako Gobernuaren zerga arloko helburuak, horien kuantifikazioa eta zehaztapena, zerga-figura ezberdinetan xehakaturik, bai eta helburu horiek betetzeko aurreikusitako egutegia ere. Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak: Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak berrikuspen orokorra egin nahi die Nafarroak arau ditzakeen zergei, funtsean zuzeneko zergei (pertsone fisikoaren errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta abarrekoak), ekarpen eraginkorra egin ditzaten jarduera ekonomikoa biziberritzeko, lanpostuak sortzeko eta, horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitatearen zerga-bilketa suspertzeko, azken urteotan bizi izan dugun egoeraren ondorioz urritu egin baita. Horretarako parte-hartze prozesu publikoa abiatu da eta hasi dira elkarrizketak eragile politiko, ekonomiko eta sozialekin, Ogasun eta Gizarte Kontseiluen bidez, eta bilerak foru lurraldean kokatutako entitate eta enprekin eta zerga gaietan adituekin. Bestalde, Nafarroako herritarrei zerga-erreformaren prozesu horretan parte hartzeko aukera eman nahian, Nafarroako Gobernuaren web atarian postontzi bat sortu da, herritarrek egokitzen dituzten iradokizun eta ekarpenak bertan jar ditzaten. Iradokitzen diren neurri guztiak, Nafarroako Gobernuak berak prozesu honetara dakartzan neurriekin batera, aztertu egingen dira eta lagunari izanen dira Nafarroako Parlamentuan 2014ko ekainean aurkeztu nahi den foru lege proiektuaren idazketan.

Beste alde batetik, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa, Nafarroako Foru Komunitatearen arau multzoaren funtsezko zutabea, eguneratzeari ekin beharra dago, azkenaldian Estatuan zein Foru Komunitatean onetsi diren zerga figurak garatu eta koordinatu behar direlako, batez ere, eta dagokien harmonizazioa behar dutelako. Hori dela eta, Administrazio Zentralarekiko elkarrizketak hasi dira, eguneratze hori ahalik eta lasterren gauza dadin. Jarduketako multzo horren ondorioz Nafarroako zerga sistema eguneratu eta modernizatu egingen da bere eginkizuna bete ahal izan dezan, hots, azken finean, nahikoa baliabide lor dezan zerbitzu publikoak eman ahal izateko eta herritarrek administrazio eraginkor bati eskatzen dizkioten jarduketak burutu ahal izateko.

Halaber, zerga iruzurraren aurkako aurreko planaren indarraldia amaituta, Zerga Iruzurraren aurka Borrokatzeko 2014-2017 aldirako Plana egingen ari da eta hurrengo asteetan aurkeztuko da, Zerga Iruzurraren aurkako Neurri buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarriak agintzen duen bezala.

Eta urtero Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen dituen tributuko aldaketak onesten ditu tributuko neurri buruzko foru legeetan. Bereziki 2014. urterako abenduaren 28ko 38/2013 Foru Legea onetsi zen, zenbait zerga aldatu eta beste tributuko neurri batzuk hartzeari buruzkoa.

Horrenbestez, 2014rako zerga arloko helburu nagusiak honako hauek dira, labur azalduz: Zerga Iruzurraren aurka Borrokatzeko 2014-2017 aldirako Plana onestea 2014. urtearen lehen erdian; aipatutako zerga-erreforma aurkeztea 2014ko ekainean, eta ondoren organo legegileak hura onestea; eta aurtengo urtean zehar Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa gaurkotzea, tributuko bi zerga-administrazioen artean nola harmonizatu arau dezan. Tributuko bakoitzean ezarri beharreko neurriak Zerga Iruzurraren aurka Borrokatzeko Planean eta Zerga Erreformari buruzko Foru Lege proiektuan aztertu eta zehaztuko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu



